

NI NIZ INDARTSÜENA

NI NIZ INDARTSÜENA

Egün batez, otso batek, ontsa jan ondoan,
tripa ontsa bete eta, oihanean ebilaldi
baten egitera deliberatü züan.

– Digeritzeko, hori da hoberena!

pentsatü züan bere beitan.

– Eta holaz, oihaneko lagünak elerranen dütüt,
nitaz zer pentsatzen düen jakiteko.

Erbi ttipi ejer bat atzaman züan bidean.

– Egün hon, beharri-handi! Errazüt,
nor da indartsüena? galtatü zeion otsoak.

– Zü zira indartsüena, otso jauna.

Egia biribila da hori, düdarik batere gabe, arrapostü eman zeion
erbiak.

Otsoa, hego haizea beno harroago,
aitzina kurritü zen oihanean.

– Bai jüstoki! Bikain da otso izatea ! erran zeion bere bürüari,
haritxen ürrin honaren senditzez.

Hürrüntxago, Txanogorritxo elerran züan.

- Zer ontsa joaiten zaizün kolore gorria?
- Tentagarria halere!...Errazüt txipitto, nor da indartsüena? galtatü zeion otsoak.
- Zü, zü zira! Ez düdarik üken otso handi!

Ihork ere ez dü besterik erran :

zü zira indartsüena ! arrapostü eman zeion neskatilak.

- A! Arrazu nüan, ordüan : ni niz indartsüena!

Maite dit besteen ahotik holako behin eta berriz entzütea !

- Gustüko dütüt goresmenak, ez naüe aspertzen, erran züan otsoak, oso botzik.

Hürrüntxago, hiru xerri hüme elerran zütüan.

- Zer da hau? Hiru xerri hüme beren etxeetarik hürrün.

Hori txori bürükeria !

Errazüet, xerri hümeak, nor da indartsüena?

Galtatü zeien otsoak.

- Zü zira indartsüena, azkarrena eta ederrena, otso handi ! Arrapostü eman zeioen hiru xerri hümeek batetan.

- Argi da ! Ni niz odolzalena eta bihozgabeena ! Otso Handi Lotsagarriena niz. Oro ikara barrasta jarten dira ni ikustez ! Erregea niz ! oihüz ari zen otsoa.

Aitzina kurritü zen eta bat batetan, zazpi ñaño kürütxatü zütüan.

- Egün hon, langile agüdoak, badakizüea nor den indartsüena ? galtatü zeien otsoak.
- Zü zira indartsüena, otso jauna ! Arrapostü eman zeioen gizon txipiek aho batez.

– Hori dük ! Argi da, oso argi!

Ez da dudarik. Ororek ororek badakie !Oihan hontako otso lotsagarriena niz !

– Lotsagarrienetarik lotsagarriena! Oihüka otsoak.

Ordüan, apo txipi baten gisako zerbait ikusi züan bidean.

– Alabadere, zoinen itsusia ziren !

Beha zite, zük ere badakizü

nor den indartsüena, ez ? galtatü zeion otsoak.

– Dudarik gabe, ene ama !

Arrapostü eman zeion kabale txipiak.

– Bena zer diok? Txakürraren putza !

Hi hiz, hi artabürüa ! Nahi nauka kesarazi ala zer?

Gaixki entelegatü nüan.

Nor erran dük dela indartsüena?

– Orai berean, erran deizüt.

Ene ama da indartsüena eta ere maitagarriena ;

eni norbaitek gaixtokeria bat egiten badeit,

kasü gero, ene amari, arrapostü eman zeion herensüge txipiak.

Eta zü, nor zira zü?

– Ni? Ni eeee....., ni otso txipi maitagarria niz, arrapostü eman zeion, doi bat gibeltzez.